

ITXAS-ONTZIGINTZA (II): TREBEBIDE BARRIAK

XIX gizaldian izan ziran gudak kalte aundia egin eutsoen gure Bizkai'ko ontzigintzari. Gaiñera bai-mena emon zan itxas-ontziak erbestean erosteko. Eta ori g;txi ba' litz, Ipar-trenak indar aundia artu eban.

Aurrerapenak gure ontzigintzara sartzea be asko luzatu zan, esaterako burdiñezko gaiak edo oialen orde z lurrunezko motorrak sartzea. Karlostarren guda biak kalte aundiak ekarri eutsoezan ain aurrera egoan Bizkaia'ri.

Baiña XIX gizaldiaren azkenerantza barriro b;zkortu zan gure ontzigintza, batez be 1868n. urtean "Diques secos" baltzua sortu zanean, gaur Olabeaga'n "Astilleros Españoles" dagoan lekuan bertan.

1888n. urtean sortu zan Astilleros del Nerbion eta asteko iru korazadun ontzi egin ziran, orduan España'n egiten ziranen artean onenak. Baltzu orretan lau milla langillek egiten eben lan. Ontzi eder oneik Cuba'ko gudara eroan ebezan eta an ondatu ziran, 1898n. urtean.

XX gizaldia asi-barri zala sortu zan Euskalduna eta urte bi geroago "Portu" ontzia saldu eutson Bizkai' ko Laba Aundiak baltzuari. Urte oneitan ikaragarria zan Bizkai'ko Ontzigintzaren indarra eta España'ko Ontzirik erdiak Bizkai'ko matrikuladunak ziran. Maura'k atera eban lege bat oso ona izan zan Bizkai'ko ontzigintzarako.

Zori txarrez, 1914n. urtean guda nagusi bildurgarria sortu zan eta España'ko ontzi asko ondatu ziran guda orretan, 1080 Bizkai'koak ziran. Guda amaitu zanean laster berbiztu zan Bizkai'ko otzigintza eta 1919n. urtean 169 ontzi egin ziran Bizkaja'n.

1914'ko guda egiten ziarduela be, gauza gogoagarri bi jazo ziran gure ontzigintzan: Sestao'ko

"Naval"aren sorkunza eta 1917'ko bagillaren 3n. egunean Artagan-Mendi ;txasoratu zan, ogeta amar milla lagun begira egozala. Teofilo Giard'ek diñosku ontzi au " Bizkaia'n egindakoen artean ederrena zala: 122 metroko luzeerea eukan eta 5.718 tone eroan eikezan. Emen egindakoen artean aundiena "orduko" millo; bi ta erdi pezeta kosta zan.

1914'ko gudaren ostean bizi-bizi dabiltz lanean ontzigintza txikiak: Ardanaz, Kadagua, Zonzunegi Beraza ta beste batzuk Bilbao'n eta Bermeo'koa, Lekeitio'koa ta Ondarroa'koa. Ontzi-jabeak gudan galdutakoa laster aurretzen dabe eta Sota ta Aznar'ek esaterako amazortzi ontzi eskatu ebezan.

1920-1930 urteetan ez dago sendotasun aundirik, baiña 1923n. urtean itxasoratu zan XIII Alfonso ontzia, 1.809 bidailari eroateko gai zana.

1930 inguruko urteak langintza guzt;etarako izan ziran txarrak eta txarrak baita gure ontzigintzarako. Dana dala, 1930n. urtean itxasoratu zan Artza-Mendi, Erdi-ugarte barruan egindako lenengo arriorio-ontzia. Urte beratan urten eben Mar Negro ta Mar Cantabrico ontziak eta 1931n'ean amaitu ziran España- maillan aundienak ziran Cabo Santo Tomé eta Cabo San Agustin ontziak. ■

OLAZAR'tar Martin'ek



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU